

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1814

*334/2023 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez José Angel Navarrina Martínez jauna Obstetrixiko eta Ginekologiako Atal Sanitarioko Burua (Obstetrixiko atala) kargutik kendu egin den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan, berak hala eskatuta.*

1491/2020 Ebazpenaren bidez, José Angel Navarrina Martínez jauna izendatu zen Obstetrixiko eta Ginekologiako Atal Sanitarioko Burua (Obstetrixiko Atala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan 2021eko urtarrilaren 18ko EHAA 11. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– José Angel Navarrina Martínez jauna Obstetrixiko eta Ginekologiako Atal Sanitarioko Burua (Obstetrixiko atala) kargutik kentzea berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko otsailaren 28ko lanaldia amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea eta haren berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Donostia, 2023ko martxoaren 8a.

Donostialdeko ESlko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.